

Organikoa

San Isidro eguna herenegun. Euskal Herriko nekazariak kezu agintarien nekazaritza politikarekin, baserriarrei begira baino gehiago industriari eta merkatuari begira ari direlako, eta gizartearen nahien aurka, herritarrek kalitatea, ingurumenarekiko errespetua, iraunkortasuna eta herri biziak nahi dituztelako. Joan zen astean, berriz, Euskal Herriko nekazariak eta beste lurralde batzuetakoak Landetako Peyrehorade herrian bildu ziren eta Montantoren bihitegi batean sartu, ale transgenikoak suntsitu nahian.

Nekazaritza industrialaren aurrean ekotzen txikiak, ekologikoak, organikoak hobesten dituzten nekazariak eta kontsumitzaileei, ordea, aliatu indartsu bat batu zaie: Wall-Mart denda kate erraldoia. Ezusteko galanta eman du elikagai organikoaren aldeko apustua eginda, eta, gainera, ohiko elikagai industrialen ia prezio bere-

an eskainiko ditu —%10 garestiago izango dira bakarrik—. Txantxa ematen du; organikoak, Wall-Mart eta prezio merkeak oximoron galanta da. Begira diezue, hala ere, alde onei: kontsumitzaileek elikagai organikoak eskuragarri eta merke izango dituzte, eta nekazaritza organikoak industrialari lurra kenduko dizkio, eta pestizida, antibiotiko eta ongarri kimiko gutxiago lurterra eta sabelera.

Transgenikoen industriari ere kolpe latza jasoko du: Wall-Martek erabaki bat hartzen duenean, elikagaien industriak atzetik jarraitzen dio. Pepsico, Kellogg, Kraft eta beste multinazional batzuek esan dute uda aldera lehen produktua «organikoa» merkaturatuko dituztela.

Wall-Martek «apustu organikoak», noski, ifrentzua ere badu. Nola eutsi elikagai organikoaren kalitateari? Nekazaritza organikoaren ezagarrri nagusia industria ez izatea da; *organikoa* eta *lokala* elkarrekin doaz. Wall-Martek, berriz, organikoaren industrializazioa ekar lezake.

Organikoa da hitza. Bada, aprobeitza dezatela nekazariak. Agintariak ere badakite: bultzatu nahi duten nekazaritzari *organikoa* labela jarri beharko dote. AEBetatik dator agindua.

HIZPI DEAK

Koldo Aldabe
kaldabe@berria.info



Hitz beste

Anjel Lertxundi

Bideak urratuz

Azpiegiturei buruzko hamasei orriko gehigarri bat zekarren atzo berripaper honek: aireportuak, errepideak, zubiak, portuak, metroa... Inork ez du zalantzan jartzen horien premia. Horien kostu ekonomikoak eta, batez ere, kostu ekologikoak ebaluatzerakoan hasten da debatea. Betor eta begi debate hori.

Bitartean, hizkuntzak ere bai baititu bere azpiegitura askotan ezkutua, Eusko Jaurlaritzak gehigarriaren azken orrialdean jarritako iragarkia dakart gaur. *Aurrera doan herria* eslogan ezagunarekin batera *Bideak urratuz* espidea ageri zen bertan. Paradoxikoa iruditzen zitzaidan. Ironiko esanguratsua. Eta, batez ere, debataren bi muturrak biltzen dituena, *bidea urratu* esamoldeak «lurra ebakiz bidea egitea» esan nahi baitu hiztegiaren arabera.

Bideak egiteko, lurra ebaki behar: aurrera doan herriak ordaindu behar duen zerga ekologikoaren aitortpen subkontzientea ote?

Montxo



‘La banda’

Jose Luis Alvarez Enparantza,
‘Txillardegil’
ldazkoa

Gaur kezkatuta egoteko arrazoik mordo da dugu abertzaleok. Katalunian gertatu denak ez digu baikortasunerako zirrikitu zabalik uzten. Bartzelonako Parlamentuak ia-ia aho-batez onartu zuen Estatutua Madrilek «zepillatu» ondoren (Alfonso Gurraren «hitz historikoak» dira), ez da Isaiasen mailako profeta izan behar *Ibarretxe Plana*-ri zer gertatuko zaion sumatzeko. Jadanik gertatua da behin.

Eta Nafarroa at utzita, eta hizkuntzaren alorrean gutzit suizida zen proiektu eskasa bera, erre-kara joango da fite; Katalunia-koa bezalaxe.

Hemen beste «zepillokada» bat datorkigu aurki. Ongi dakigu denok, baita irakurleak ere.

Eta PNVk ere badaki. Baina Ibarretxe oraintxe etxera bidaltzeko erabakia hartzea, zail gertatzen zaio. Nahiz luza gabe hasiko diren horretarako prestaketa lanak.

Autonomiaren mugak zein diren espainol gutzien artean erabaki behar da.

Erabakimena Espainiari dagokio; eta ez Espainiako atal honi edo hari. Horixe falta genuke!

Eskubide subjektu bakarra Espainia delako.

Bidenabar. Katalunian ez da borroka armaturik egon. Zepillaketak, hortaz, ez datoz ETatik.

«Gipuzkoa» eta «Bizkaia» euskal idazkerak legeztatzea ezinezkoa izan da. Frenete espainolak tinko jokatu du axaleko arazo ortografiko huts horretan.

Zer espero dezakegu, beraz, Euskal Herriaren Auto-Determinazioaz?

Baina Lakuaren eta Madrile-ren arteko harremanak, gutzit

«fluidoak» omen dira. Balzak lasai asko bidaltzen ditu «Gobernu Zentral»-era (hauxe da PNVren hizkera) HBko 40 Herriko Tabernari buruzko txostenak. Eta, ohi bezala, Grande Marlaskak erabakiko duena bete eraztera bidaltzen du Ertzaintza behin eta berriz: «*Las decisiones judiciales deben ser cumplidas, gusten o no.*»

Jon Agirre Agiriano arrasatearra, gure Mandela, 64 urte, orain dela 25 urte preso; eta gaxorik gainera. 92.Art. ezartzeko eskatu dute bere herrikideak. Erantzuna? Ez. Eta Jaurlaritzako bozeramaleak esango lukeen bezala, badakike Jonek guk baino hobeto zergatik tratatzen duten horren gaizki.

Felix Etxeberria UPVko katedradunak, artean, oso datu kezagarriak aldarrikatu ditu egun hauetan. Etorikinek A erudura jotzen dutela; eta, *de facto*, euskaratik arras urrun dagoen multzo

soziologiko zabala sortzen ari dela.

Baina «no problem». Hobeto esanda: «*el problema hoy es la banda*». Sinets ezina da. ETAK orain dela bi hilabete suetena eman zuenez geroztik, inoiz baino maizago entzuten ditugu «*la banda*» hitz iraingarriak.

Hemen beste «zepillokada» bat datorkigu aurki. Ongi dakigu denok. Eta PNVk ere bai. Baina Ibarretxe etxera bidaltzeko erabakia hartzea zail gertatzen zaio

Espainiar hizkera onartzuz, asetero Radio Euskadin PNVren izenean mintzo den Pepe diputatuak, lasaitasun osoaz ezetsi zuen «*la banda*» (sic) joan den Maiatzaren 11an.

Baina «*banda*» horrek, izugarriko prezioa ordainduz, Euskal Herriaren kondaira aldatu du; PNVk poltronismoan eta «*sentirse cómodos en España*» delakoan dotrina goraitpatzen zuen urteetan.

Gero etorri da ETaren elkarriketa luzea. Eta testu horretan azaltzen diren egia borobilei buruzko erantzuna harro bezain gezurti erantzun diote jeldike ek: «*Hoy, como en 1979, el PNV sabrá escoger el camino correcto, frente a maximalistas, esencialistas e inmovilistas.*» Nola esan dezake horrelakorik euskal birrik izan eta urte hauetako kondaira ezagutzen dituen inork?

Ondorioz, Alderdien Mahaia udazkenerako proposatzen du lotsarik gabe. Ez omen dago presarik.

Gehiagi da, benetan. Eta bada garaia nor bere lekuan, eta dagokion izendapenez, jartzeko.